

PARQUE TECNOLÓGICO DE ALAVA-ARABAKO TEKNOLOGI
ELKARTEGIA, S.A.-REN ESTATUTUAK

1. ARTIKULUA. IZENA, HELBIDEA, XEDEA ETA IRAUPENA

PARQUE TECNOLÓGICO DE ALAVA – ARABAKO TEKNOLOGI ELKARTEGIA, S.A. izeneko merkataritza-sozietate anonimoak Miñao Mayor (Araba), N-240 errepidea, 9. km-a, ARABAKO PARKE TEKNOLOGIKOAn du egoitza. Administrazio Kontseiluak egoki irizten dion sukurtsalak, gordailuak eta bulegoak ezarri, kendu eta lekuz aldatu ditzake, baita sozietatearen egoitza aldatu ere, udalerrri berean bada.

Denbora-mugarik gabe jardungo du industria-ekimena eta -inbertsioa suspertzen eta sustatzen, industria-pabiloien gune bat eraikiz. Gune horren ustiapena kudeatuko du errentamendu-formulen, jabetza-transferentzien edo bestelako formulen bidez, baita prekarioan lagatzearen bidez ere. Lokalak eta zerbitzuak sustatu eta merkaturatuko ditu, bertan ezartzeko hautagai diren enpresak hautatu eta gonbidatuko ditu. Enpresa horiek teknologia aurreratuaren arloan jardungo dute, bereziki, produktu, prozesu eta zerbitzuei aplikatutako elektronikaren eta informatikaren arloa (hardwarea eta softwarea) sustatuz. Era berean, instalazio mota horietan nahitaez bete beharreko zerbitzuak etengabe kudeatzen eta ustiatzen jarraituko du: testu-prozesua, telexa, ordenagailu bidezko marrazketa, datu-baseekiko konexioa, ordenagailua eta bulegoetako makineriaren alokairua, bilera-gelak eta telefono bidezko arreta pertsonalizatua. Eratze-eskrituraren egunean hasiko da jardunean.

2. ARTIKULUA. KAPITAL SOZIALA ETA AKZIOAK

Kapital soziala honako zifra honetan finkatu da: (ikusi urteko kontuak).

Akzioak titulu izendunen bidez ordezkaturik daude, eta titulu horiek anitzak izan daitezkeela aurreikusi da. Akzio horiek Sozietateak eramango duen Akzio Izendunen Erregistro Liburuan inskribatu beharko dira.



Akzio guztiak mota eta serie berekoak dira, titular legitimoari akziodun izaera ematen diote, eta eskubide berberak ematen dituzte: Kapital Sozietateei buruzko Legearen 93. artikuluan aipatutakoak, bereziki, sozietate-irabazietan eta likidazio-ondarean parte hartzeko eskubidea, akzio berriak edo akzio bihur daitezkeen obligazioak jaulkitzean lehentasunez harpidetzekoa, Batzar Nagusietan parte hartzekoa eta botoa ematekoa, eta sozietatearen erabakiak aurkaratzekoa eta informazio eskubidea. Era berean, aipatutakoez gain, Kapital Sozietateen Legeak eta aplikagarria zaion beste edozein lege-xedapenek emandako eskubide guztiak ematen dituzte.

Sozietatearen akzioak besterendu nahi dituen erakundeak edo bazkideak idatziz jakinarazi beharko dio Administrazio Kontseiluari, eta hark, hilabeteko epean, gainerako akziodunei jakinaraziko die. Horiek bi hilabeteko epea izango dute erosteko aukera baliatu eta gauzatzeko, eta, akzioak batek baino gehiagok erosi nahiko balitu, haien artean banatuko dira, bakoitzak dituen akzioak hainbanatuta.

Bazkide den erakunde edo pertsona bakar batek ere ez badu salgai dauden akzioekiko interesik, Sozietateak eskuratu ahal izango ditu, hogeita hamar eguneko epean, legeak ezarritako muga eta ondorioen arabera.

Azken hori igarotakoan, akzioduna den erakundea edo pertsona libre geratuko da bere akzioak egoki irizten dion moduan eskualdatzeko, eta hori hilabete biko epean egin beharko du.

Aurretiaz ezarritako lehentasunez erosteko eskubidea egikaritzeko, salmenta-prezioak gutxienez eskualdatu beharreko akzioen balio errealari dagokiona izan beharko du eta, desadostasunik izanez gero, peritatze bidez finkatuko da. Peritatze horren titulartasuna alderdiek adostasunez izendatuko baitute, eta, halakorik ezean, epaitegi eskudunak izendatuko du.

Baliorik gabeak izango dira sozietateaz kanpoko pertsona bati eskualdatzen zaizkion akzioak, baldin eta ez badator estatutuetan ezarritakoarekin bat.

3. ARTIKULUA. BATZAR NAGUSIA. DEIALDIA ETA BERE ERABAKIEN DERRIGORTASUNA



Akziodunen ordezkariak osatuko dute Batzar Nagusia, baldin eta bost egun lehenago egiaztatzen badute akzio baten edo gehiagoren titulartasuna. Batzar Nagusiak legeak ezarritako moduan deituko dira, eta haren erabakiak, estatutu hauen eta indarreko legeriaren arabera hartuak, nahitaez bete beharrekoak izango dira akziodun guztientzat, baita disidenteentzat edo bertaratu ez direnentzat ere.

4. ARTIKULUA. BATZAR MOTAK

Batzar nagusia bi motatakoa izango da: ohikoa eta ezohikoa.

Ohiko Batzar Nagusia ekitaldi bakoitzeko lehen sei hilekoan bilduko da nahitaez, sozietatearen kudeaketa aztertzeko, aurreko ekitaldiko kontuak onartzeko, hala badagokio, eta emaitzaren aplikazioa ebazteko.

Beste edozein Batzar Ezohikoa izango da, eta edozein unetan bilduko da, Batzar Nagusiaren eskumenekoak diren gaien berri izateko, Legeak Ohiko Batzar Nagusiari berariaz erreserbatutakoak izan ezik.

Aldez aurreko deialdirik eta iragarkirik egin beharrik gabe, Batzar Nagusia, ohikoa zein ezohikoa, deitua izan dela eta edozein gai aztertzeko balioz eratua izango dela ulertuko da, baldin eta jarritako kapital guztia bertan badago eta bertaratutakoek aho batez onartzen badute Batzarra egitea, nahiz eta bilera egoitza sozialetik kanpo egin, baina, beti ere, Espainiako lurraldearen barruan.

5. ARTIKULUA. BATZAR NAGUSIAREN AHALMENAK

1.- Batzar Nagusiaren ahalmenak izango dira Kapital Sozietateei buruzko Legean eta aplikatu beharreko legeria osagarrian organo horri esleitutakoak, baita sozietatearen estatutuetatik eratorritakoak ere.

2.- Akziodunen Batzar Nagusia, ohikoa zein ezohikoa, balioz eratuta geratuko da lehen deialdian, bertaratutako edo ordezkaturako pertsona eta erakunde akziodunek boto-eskubidearekin harpidetutako kapitalaren % 25 dutenean, gutxienez. Bigarren deialdian, Batzar Nagusiaren eraketa baliozkoa izango da, bertan parte hartzen duen kapitala edozein dela ere.



Hala ere, lehenengo deialdian, beharrezkoa izango da bertaratutako edo ordezkaturako pertsona eta erakunde akziodunek parte hartzea, gutxienez boto-eskubidearekin harpidetutako kapitalaren % 50 badute, Kapital Sozietateei buruzko Legearen 194. artikuluan aipatzen diren erabakiak hartzeko.

Eta, bigarren deialdian, kapital horren % 25 elkartzea nahikoa izango da.

Boto-eskubidearekin harpidetutako kapitalaren % 50 baino gutxiago ordezkatzeko duten akziodunek parte hartzen dutenean, Kapital Sozietateei buruzko Legearen 194. artikuluan aipatzen diren erabakiak baliozkotasunez hartu ahal izateko, Batzarrean dauden edo ordezkaturako dauden kapitalaren bi herenen aldeko botoa beharko da.

6. ARTIKULUA. BATZARRA EGITEKO-EZTABAIDATZEKO ETA BOZKATZEKO ERA

Batzar nagusia sozietateak egoitza duen udalerrian egingo da. Deialdian bilera non egingo den agertzen ez bada, Batzarra sozietatearen egoitzan egiteko deialdia egin dela ulertuko da.

Batzar Nagusian parte hartzeko, bilera egingo den lekura joanda edo bitarteko telematikoa erabiliz egin daiteke. Horretarako, deialdian erabiliko diren bitartekoak zehaztuko dira. Baliabide horiek bertaratutako pertsonak nortzuk diren jakitea eta identifikazioa bermatu beharko dute, eta haien arteko etengabeko komunikazioa, baita administratzaileek batzarra modu ordenatuan garatzeko aurreikusitako akziodunen eskubideak baliatzeko epeak, erak eta moduak ere.

Aipaturako edozein modutan bertaratutako pertsonak bilera bakarrean hartzen ari direla parte ulertuko da, eta bilera hori leku nagusia dagoen lekuan edo, halakorik ezean, egoitza sozialean egin dela ulertuko da.

Batzar Nagusiak Administrazio Kontseiluaren presidentetza pean egingo dira, edo, bestela, batzarrek kargu horretarako izendatzen duten administratzailearen pean. Batzarreko idazkari Administrazio Kontseiluko idazkaria izango da, edo, bestela, batzarrek kargu horretarako izendatzen duten administratzailea.

Presidenteak zuzenduko ditu eztabaidak, hala eskatzen duten bilerara bertaratutakoei hitza emango die, baina bakoitzak esku hartzeko duen denbora eta



aldiak mugatu ditzake, eta sozietatearen estatutuak interpretatzeari eta betetzeari buruz sortzen diren zalantzak argituko ditu. Akzio bakoitzari boto bat dagokio. Erabakiak botoen gehiengoz hartuko dira.

Batzar Nagusietako aktak dagokion liburuan egingo dira, eta presidenteak eta idazkariak sinatuko dituzte. Batzordeak berak onartu ditzake, edo, bestela, hamabost eguneko epean, presidenteak eta gutxiengoaren ordezkari batek eta gehiengoaren beste batek. Azken horiek Batzarrean aukeratu beharko dira.

Ziurtagiriak idazkariak egingo ditu, eta presidentearen oniritzia izan beharko dute.

7. ARTIKULUA. ADMINISTRAZIO KONTSEILUA, IZAERA ETA EGINKIZUNAK

Administrazio Kontseilua sozietatearen kide anitzeko organoa da, eta berari dagokio sozietatearen kudeaketa eta ordezkaritza neurririk zabalenean, judizioan eta hortik kanpo, muga bakarrak direla Batzar Nagusiaren erabakietan jasotakoak eta, legeak hala aginduta, Batzar Nagusiari dagozkion ahalmenak edo estatutuetan horri gordetzen zaizkionak.

8. ARTIKULUA. OSAERA, IZENDAPENA, KARGUAK ETA IRAUPENA

Administrazio Kontseilua bederatzi pertsonak osatuko dute, eta Batzar Nagusiak izendatuko ditu, akziodunen proposamenez eta baldintza hauetan:

PRESIDENTEA: INDUSTRIAREN SUSTAPEN ETA ERALDAKETARAKO BALTZUA, SAK proposatuta.

LEHENENGO PRESIDENTEORDEA: ARABAKO FORU ALDUNDIAK proposatuta.

BIGARREN PRESIDENTEORDEA: INDUSTRIAREN SUSTAPEN ETA ERALDAKETARAKO BALTZUA, SAK proposatuta.

1. BATZORDEKIDEA: INDUSTRIAREN SUSTAPEN ETA ERALDAKETARAKO BALTZUA, SAK proposatuta.



2. BATZORDEKIDEA: INDUSTRIAREN SUSTAPEN ETA ERALDAKETARAKO BALTZUA, SAK proposatuta.

3. BATZORDEKIDEA: INDUSTRIAREN SUSTAPEN ETA ERALDAKETARAKO BALTZUA, SAK proposatuta.

4. BATZORDEKIDEA: ARABAKO FORU ALDUNDIAK proposatuta.

5. BATZORDEKIDEA: Vitoria-Gasteizko Udalak proposatuta.

6. BATZORDEKIDEA ETA IDAZKARIA: ARABAKO FORU ALDUNDIAK proposatuta.

Presidenteorde bat baino gehiago badira, horietako bakoitza zenbakituta egongo da. Zenbakiaren lehentasunak zehaztuko du presidenteorde horiek zein ordenatan ordezkatzuko duten presidentea, absentzia, ezgaitasun edo lanpostu hutsen kasuetan.

Administratzaileak ez dira egongo kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkak arautzen dituen 2022ko ekainaren 26ko 1/2014 Legearen eta gainerako legeria aplikagarriaren bateraezintasunen eraginpean, eta horietan ezin izango dira elkartu LSCren 213. ARTIKULUAK zehaztutako inguruabarrak, eta gehienez ere bost urtez beteko dute beren kargua. Hala ere, agintaldia amaitzean, gehienez ere iraupen bereko aldietarako berrautatu ahal izango dira, berrautaketa kopururako mugarik gabe, eta Batzordeak ezartzen duen moduan eta denboran berrituko dira, Batzordeak edozein unetan kargutik kentzea erabaki ahal izateari kalterik egin gabe.

Akziodunen Batzar Nagusiak sistema bat zehaztu dezake aginte-organo hori osorik berritu ez dadin, eta zatika eta ondoz ondo egin dadin, nahiz eta lehenengo agintaldian edo antzeko beste egoera batean iraupena administrazio-organoko kideentzat aurrez zehaztutakoa baino txikiagoa izan.

9. ARTIKULUA

Kontseiluaren presidentea, kanpoan edo gaixorik badago, presidenteordeak ordezkatzuko du, eta, halakorik ezean, Kontseiluak berak izendatzen duen Kontseiluko kideak.

10. ARTIKULUA

Administrazio-organoa sozietatearen interesak eskatzen duen beste aldiz bilduko da, presidentetzak eskatuta, eta, gutxienez, hiru hilean behin. Kontseiluko kideen herena gutxienez osatzen duten administratzaileek deialdia egin ahal izango dute, gai-zerrenda adierazita, egoitza soziala dagoen herrian egiteko, baldin eta, presidentetzari alde aurretik eskatuta, justifikatutako arrazoirik gabe, hilabeteko epean deialdia egin ez badu.

Administrazio Kontseiluaren bilkuretarako deialdia gutun, fax, telegrama, posta elektronikoa edo jaso izanaren berri eman dezakeen beste edozein bitartekoren bidez egingo da, eta presidentearen edo idazkariaren sinaduraren bitartez baimenduko da, presidentearen aginduz. Deialdia gutxienez berrogeita zortzi (48) ordu lehenago egingo da, salbu eta presidenteak presazko arrazoirik ikusten badu.

Aurrekoari kalterik egin gabe, Administrazio Kontseilua balioz eratzat joko da, deialdirik egin gabe, baldin eta, bertaratuta edo ordezkaturik, Kontseiluko kide guztiek aho batez onartzen badute bilkura egitea eta gai-zerrendan aztertu beharreko puntuak.

Bilerak, oro har, sozietatearen egoitzan egingo dira, baina presidentetzak zehazten duen beste leku batean ere egin daitezke, edo bitarteko telematikoen bidez, kontseilariak aldi berean leku desberdinetatik parte hartuta, ikus-entzunezko edo telefono bidezko bitartekoen bidez konektaturik, betiere bertan parte hartzen duten kideak nortzuk diren eta denbora errealeko interaktibitatea eta interkomunikazioa bermatzen badira, eta, beraz, egintza-batasuna bermatzen bada. Kontseilariren bat egoitza sozialean badago, bilera bertan egin dela ulertuko da. Hala ez bada, bilera kontseiluburua dagoen lekuan egin dela ulertuko da.

Era berean, Administrazio Kontseiluak idatziz eta bilkurarik gabe hartu ahal izango ditu erabakiak, baldin eta Kontseiluko inor ez badago prozedura horren aurka, indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera.

11. ARTIKULUA. BILERAK EGITEA ETA ERABAKIAK HARTZEA



1.- Administrazio Kontseilua behar bezala eratuta geratuko da, baldin eta Kontseilua osatzen duten pertsona guztien erdiak baino gehiagok parte hartzen badute bileran.

2.- Administrazio Kontseiluko presidentea izango da bileretako buru eta berak bideratuko ditu bilerak.

3.- Kontseiluko idazkaritzari dagokio deialdiak izapidetzea eta bilkurak prestatzea, deialdietan gertatutakoari buruzko akta egingo du, eta presidentearen oniritzia izanda sinatuko ditu. Era berean, hartutako erabakien ziurtagiria luzatuko du.

Idazkariaren eginkizunak Kontseiluko kide gazteenak beteko ditu, kargua hutsik, idazkaria kanpoan edo gaixorik egonez gero, edo legezko eragozpenik badago.

4.- Kontseiluak bertaratutako kideen gehiengo osoz hartuko ditu erabakiak, eta, berdinketa gertatuz gero, kalitateko botoa izango du presidenteak.

5.- Bileretako akta-liburua eramango du Sozietateak, eta Kontseiluaren Idazkariak zaindu eta gordeko du.

12. ARTIKULUA. ESKUDUNTZAK

Administrazio Kontseiluak ezarriko ditu antolakuntzarako eta barne-araubiderako arauak eta jarraibideak, eta ahalik eta ahalmen zabalenak izango ditu sozietatearen eskubideak eta betebeharrak egikaritzeko eta betetzeko. Sozietatearen ordezkari izango da judizioan eta hortik kanpo, enpresaren igorpenarekin edo trafikoarekin zerikusia duten gai eta negozio guztietan. Sozietatearen eskubideak eta betebeharrak egikaritu eta betetzeko, mota guztietako egintzak eta kontratuak egin ditzake, baita ondasun higigarriak eta higiezinak eta mota eta izaera guztietako eskubideak eskuratzeko, erabiltzeko eta kargatzeko negozioak ere.

13. ARTIKULUA. AHALMENAK ESKUORDETZEA

Administrazio Kontseiluak, osatzen duten pertsonen bi herenen aldeko botoarekin, batzordeak eratu eta antolatu ahal izango ditu, baita kontseilari delegatuak eta gerenteak izendatu ere. Horiek, oro har edo gai edo negozio jakin batzuetarako, legez eskuordetzan eman dakizkiekeen ahalmenak izango dituzte, beren eginkizunak behar bezala betetzeko emango zaizkienak.

14. ARTIKULUA. URTEKO KONTUAK

Urtero, abenduaren hogeita hamaika erreferentzia hartuta, Administrazio Kontseiluak urteko kontuak (balantzea, galdu-irabazien kontua eta azalpen-memoria barne), kudeaketa-txostena eta emaitzak aplikatzeko proposamena egingo ditu.

Urteko kontuak eta kudeaketa-txostena kontuak ikuskatzeaz arduratzen diren pertsonak berrikusi beharko dituzte. Halaber, kontu horiek Ohiko Batzar Nagusiak onartu beharko ditu.

15. ARTIKULUA. GASTUAK, ERRESERBAK ETA MOZKINEN BANAKETA

Lortutako produktuetatik honako hauek kenduko dira: gastu orokorrak, ekitaldi sozialari dagozkion zergak ordaintzeko aurreikuspena estaltzeko beharrezkoa den zenbatekoa, Batzordeak aktiboko elementuak amortizatzeko eta arriskuen aurreikuspenarako erabiltzea komenigarritzat jotzen dituen kopuruak, eta Legearen 274. artikuluko legezko erreserba-funtsean edo borondatezko erreserba-funtsean eratzen direnak. Irabazia, egonez gero, akziodunen artean banatuko da, baldin eta kontabilitateko ondare garbiaren balioa 0 ez bada edo, banaketaren ondorioz, ez bada kapital soziala baino txikiagoa, LSCren 273. artikuluan ezarritakoa ere kontuan hartuta, edo erreserbako, aurreikuspeneko edo kontu berriko funtsera bideratuko bada, Batzar Nagusiak erabakitakoaren arabera.

Nolanahi ere, Sozietatearen kontabilitateko ondare garbiaren balioa kapital sozialaren zifra baino txikiagoa izatea eragiten duen aurreko ekitaldietako galerarik balego, zergak ordaindu ondoren, mozkina galera horiek konpentsatzeko erabiliko da nagusiki, eta mozkin gehiago geratuko balira, orduan baino ezin litezke artikulua honetan xedatutako aplikazioak egin.

16. ARTIKULUA. DESEGITEA ETA LIKIDAZIOA

Sozietatea era hauetara desegin daiteke: Akziodunen Batzar Nagusiak LSCren 193 eta 194 artikuluen arabera hartutako erabakiaren bidez, edo LSCren 360 eta 363 artikuluetan aurreikusitako legezko beste edozein arrazoiengatik, eta Administrazio Kontseiluak, Batzar Orokorrak izendatutako pertsona batekin batera, zenbaki



bakoitia izan dadin, likidatu egingo du, estatutu hauen arabera eta indarrean dagoen zuzenbide positiboaren preskripzioen arabera dagozkion eskuduntza berberekin, eta Batzar Orokorrak bere estatutu- eta lege-ahalmenak gordeko ditu.

17. ARTIKULUA. ARBITRAJEA

Legezko ezarpenaren ondorioz prozedura bereziaren mende jarri behar diren gaiei kalterik egin gabe, estatutu hauek interpretatu, bete eta betearaztean sor litezkeen zalantza, arazo edo desberdintasun guztiak Arbitrajeari buruzko abenduaren 23ko 60/2003 Legeak ekitate-arbitrajeetarako ezartzen dituen arauen arabera ebatziko dira.